



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 2022/10

SESIÓN Nº: 2022/10

EGUNA: 2022/11/24

DÍA: 24/11/2022

HASIERA ORDUA: 19:05

HORA DE INICIO: 19:05

AMAIERA ORDUA: 19:30

HORA DE FINALIZACIÓN: 19:30

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

LUGAR: Salón de Plenos de la casa consistorial

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar Beristain

Aritz Larrañaga Unanue

Antxon Etxeberria Larrea

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxoka Elorza Altuna

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar Beristain

Aritz Larrañaga Unanue

Antxon Etxeberria Larrea

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxoka Elorza Altuna

Debarren Ahotsa udal taldea

Pedro Bengoetxea Loiola

Isidor Lamariano Arostegi

Ane Egidazu Elosua

Enrique Salgado Alcorta

Grupo municipal Debarren Ahotsa

Pedro Bengoetxea Loiola

Isidor Lamariano Arostegi

Ane Egidazu Elosua

Enrique Salgado Alcorta

EAJ-PNV udal taldea

Iñigo Cambroneru Alkorta

Eneritz Gómez Lázaro

Miren Esnal Laskibar

Grupo municipal EAJ-PNV

Iñigo Cambroneru Alkorta

Eneritz Gómez Lázaro

Miren Esnal Laskibar

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

Secretario: Jose Luis Salaberri Iñarra

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

Gilen Garcia: Arratsaldeon eta ongi etorri Osoko Bilkurara.

Lehenik eta behin, proposatzen dugu Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionalaren onarpena urgentziaz sartzeari gai zerrendan.

Gilen Garcia: Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionalaren onarpena gai zerrendan sartzeari.

Gilen Garcia: Orduan hori izango gaurko saioaren 6. puntua, eta eskari eta galderak 7. izango da

1.-AURREKO BILKUREI (2022/09/29 ETA 2022/10/27) DAGOZKIEN AKTA ZIRRIBORROAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gilen Garcia: Ba al dago iradokizunik edo ekarpenik? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez, onartzen ditu 2022ko irailaren 29ko eta 2022ko urriaren 27ko Osoko Bilkuren aktak.

2.-ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA.

Gilen Garcia: Dekretuen harira, zera argitu nahi dizuet. 561. Dekretu ikusten duzue, "Akats zuzenketa: 2023 urterako taxien tarifak" jartzen du. Hori, gogoratzen baduzue, aurreko Osoko Bilkuran taxien tarifak onartu genituen taxien elkarrekin eginiko proposamenaren arabera, baina Debabarreneko Udalei helarazitako proposamenean akats bat zegoen ordutegian. Eskualde bakarra ginen ordutegi hori geneukana, eta hori zuzentzea eskatu digute. Horrela, tarifen ordutegia zuzendu dugu eta Gipuzkoako beste eskualdetan onartutako ordutegia jarri da.

Gilen Garcia: Hori argituta, zuen aldetik ba al dago ekarpenik edo iradokizunik?

Ez dago ez ekarpenik edo ez iradokizunik.

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS.

Gilen Garcia: Buenas tardes y bienvenidos y bienvenidas a la sesión plenaria de hoy.

En primer lugar, proponemos incluir en el orden del día, como asunto de urgencia, la aprobación de la declaración institucional del Día Internacional del Euskera.

Gilen Garcia: ¿Votos a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, aprueba incluir en el orden del día la aprobación de la declaración institucional del Día Internacional del Euskera.

Gilen Garcia: Entonces ese será el punto 6º de la sesión de hoy, y el 7º de ruegos y preguntas.

1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES (29/09/2022 Y 27/10/2022).

¿Hay alguna sugerencia o aportación? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, aprueba las actas de las sesiones plenarios de 29 de septiembre de 2022 y 27 de octubre de 2022.

2.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.

Gilen Garcia: Al hilo de los Decretos, quiero hacer una aclaración. Como podéis observar en el decreto 561 se indica "Akats zuzenketa: 2023 urterako taxien tarifak". Si recordáis, en el Pleno anterior se aprobaron las tarifas de los taxis según la propuesta de la asociación de taxis, pero en la propuesta remitida a los Ayuntamientos de Debabarrena había un error en el horario. Éramos la única comarca con ese horario, y nos solicitaron su corrección. Así, se ha corregido el horario de las tarifas y se ha incluido el mismo horario aprobado en el resto de las comarcas de Gipuzkoa.

Gilen Garcia: Aclarado este punto, por vuestra parte, ¿hay alguna aportación o sugerencia?

No hay aportaciones ni sugerencias.



Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

El Pleno queda enterado.

**3.- VIALINE ENPRESAK KUDEATUTAKO
2022KO TRAFIKO ISUNEI BURUZKO
ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA.**

**3.-CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA
SOBRE MULTAS DE TRÁFICO GESTIONADAS
POR LA EMPRESA VIALINE EN 2022.**

Gilen Garcia: Ba ahal dago iradokizunik edo ekarpenik?

Gilen Garcia: ¿Tenéis alguna pregunta o aportación?

Ez dago ez ekarpenik edo ez iradokizunik.

No hay aportaciones ni sugerencias.

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

El Pleno queda enterado.

**4.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO,
ITZIARKO TOKI ENTITATE TXIKIKO 2/2022
KREDITU ALDAKETA.**

**4.-APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN
DE CRÉDITOS 2/2022 DE LA ENTIDAD
MENOR DE ITZIAR.**

Gilen Garcia: Itziar, zurea da hitza.

Gilen Garcia: Itziar, tienes la palabra

Itziar Irizar: Asteartean eginiko Ogasuneko Batzordean aztertu genuen gai hau, eta Batzordearen irizpena hor duzue, gaurko saiaren dokumentazioaren artean. Bertan agertzen den bezala, hainbat partidatan diru gehiago egon behar du, kasu batzuetan, baserri bideak konpontzeko. Guztira 212.199 euroko kreditu aldaketa da, eta finantzatzen da baserri bideetarako jasotako diru-laguntzekin eta altxortegiko gerakinarekin.

Itziar Irizar: Este tema se trató en la Comisión de Hacienda celebrada el pasado martes y, entre la documentación de la sesión de hoy, tenéis el dictamen de la Comisión, y como aparece en el mismo, hay partidas en las que se necesita más dinero, en algunos casos, para arreglar los caminos rurales. Se trata de una modificación de créditos por importe de 212.199 euros que se financia con las subvenciones recibidas para caminos rurales y con el remanente de tesorería.

Gilen Garcia: Ez baduzue ezer gehitu nahi, bozkatu egingo dugu. Aldeko botoak? Aho batez.

Gilen Garcia: Si no queréis añadir nada, procederemos a la votación. ¿Votos a favor? Por unanimidad,

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Itziarko toki entitate txikiko 2/2022 kreditu aldaketa.

El pleno, por unanimidad, aprueba la modificación de créditos 2/2022 de la entidad menor de Itziar.

**5.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO,
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO
EGUNAREN ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA.**

**5.-APROBAR, SI PROCEDE, LA DECLARACIÓN
INSTITUCIONAL DEL DÍA INTERNACIONAL
PARA LA ERRADICACIÓN DE LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES.**

Gilen Garcia: Itziar, zurea da hitza.

Gilen Garcia: Itziar, tienes la palabra.

Itziar Irizar: Adierazpen instituzionala

Itziar Irizar: Procede a la lectura de la

irakurtzen du:

declaración institucional:

«- AZAROAK 25 -

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25ean, beste behin, emakumeok espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko dugun eskubidea aldarrikatu nahi dugu, norberaren askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena bermatuz.*

Emakumeon aurkako sexu-indarkeriak, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea.*

Batzuei, "normaltasunera" iristen ari garela iruditzen zaien arren, zoritxarrez, bide luzea dago jorrazteko; eta gutariko bakoitzari dagokigu, egunerokotasunean arreta jarritz, detaile txikienari erreparatuz, gure inguruan eragitea, jardutea, ... bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde egitea dagokigulako.

Gure kasuan, Debako Udalbatzatik, bide horretan lagungarri izan daitezkeen baliabide eta ekimenak hobetzen jarraitzeko konpromisoa hartu nahi dugu, honakoa adieraziz:

- 1. 2022ko aurrekontuetan Berdintasun Politiken alorreko jarduerak aurreikusten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugula.*
- 2. Jai parekideak sustatzeko lanean jarraituko dugula. Bertan gerta daitezkeen erasoei erantzuteko eta prebenitzeko protokoloa eguneratuta mantenduz, herriko eragileekin batera (DIT, kultur eragileak, ...).*
- 3. Debako Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugula, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.*
- 4. Eta, azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Emakunderi emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko eskatzen diegula, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legedia berraztertzeko konpromisoa hartzeko.*

Deban, 2022ko azaroaren 24an.»

Itziar Irizar: Hori da adierazpena, eta gehitu nahiko nuke Berdintasun Politika Batzordetik eta bertan parte hartzen duten eragileekin batera, egun horren bueltan antolatzen diren ekimenetan parte hartzeko deia egitea herritarrei. Batzuk gauzatuta daude, eta oso erantzun ona izan dute, baina bihar da eguna, azaroaren 25a, eta arratsaldeko 7etan Foruen plazan egingo da elkarraraztea, eta herritarrei deia luzatzen diegu bertaratzeko. Bertan Deba eta Itziar talde feministak azken asteetan jasotako indarkeria matxistei buruzko testigantzak azalduko dituzte, eta horren ondoren, "Beldur Barik" lehiaketaren emaitzak azalduko dira 19:30tan. Eta egitarauarekin bukatzeko, azaroaren 27an, ipuin kontalarien saioa izango dugu 17:30tan.

Itziar Irizar: Esta es la declaración, y me gustaría hacer un llamamiento a la ciudadanía para que participe en las iniciativas organizadas en torno a ese día desde la Comisión de Política de Igualdad, junto con los agentes que participan en la misma. Algunas ya se han realizado, y han tenido una respuesta muy positiva, pero mañana es el día, 25 de noviembre, y a las 7 de la tarde se hará una concentración en Foruen plaza, y hacemos un llamamiento a la ciudadanía para que participe. En dicho lugar los grupos feministas de Deba e Itziar expondrán los testimonios sobre violencias machistas recogidos en las últimas semanas, y posteriormente, a las 19:30, se expondrán los resultados del concurso "Beldur Barik". Y para finalizar con el programa, el día 27 de noviembre a las 17:30 tendremos una sesión de



Itziar Irizarrek hitz egiten zuen bitartean, 19:10etan, Miren Esnal zinegotziak aretoa uzten du ez tulaldi bat dela eta.

Gilen Garcia: Ba al dago ekarpenik edo adierazpenik? Ez. Hala ere, ados bazaudete, bozkatu aurretik pixka bat itxarongo dugu Miren bueltatu arte.

19:15ean Miren Esnal aretora bueltatzen da.

Gilen Garcia: Orain bai, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala.

6.- Gai zerrendatik kanpoko aztergaia: ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Gilen Garcia: Aritz, zurea da hitza.

Aritz Larrañaga: Adierazpen instituzionala irakurtzen du:

cuentacientos.

Durante la exposición de Itziar Irizar, a las 19:10 horas, la concejala Miren Esnal abandona la sala por un acceso de tos.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna aportación? No, aun así, si os parece, antes de votar esperaremos un poco a que vuelva Miren.

A las 19:15 Miren Esnal se reincorpora a la sesión.

Gilen Garcia: Ahora sí, procedemos a la votación. ¿Votos a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, aprueba la declaración institucional del día internacional para la erradicación de la violencia contra las mujeres.

6.- Asunto fuera del orden del día: APROBAR, SI PROCEDE, LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA.

Gilen Garcia: Aritz, tienes la palabra.

Aritz Larrañaga: Procede a la lectura de la declaración institucional

«- ABENDUAK 3 -

ARNASA ETA BIDEA ZABALTZEN

Udaleri euskaldunen adierazpen bateratua

Berriki ezagutu ditugu udaleri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoaren datu gehiago. Euskararen ezagutzak gora egin duenez, gero eta gehiago dira udaleri euskaldunak, eta euskararen lurgunea ere sendotzen ari da. UEMARA gehitu diren azken udalak kontuan hartuta, berriz, 300.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dugu Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko herriek.

Ez da nolanhiko zenbakia. Euskal Herrian ekoizten den euskararen erdia udaleri euskaldunetan ekoizten baita. Hemen dago, kuantitatiboki, euskararen errealitatearen erdia. Kualitatiboki, berriz, euskarari hauspoa eta arnasa ematen diote udaleri euskaldunek. Berebiziko garrantzia dute euskararen biziberritzean, transmisioan eta indarberitzean, eta herri honen izaeraren ardatza dira. Euskararen herriak gara, eta Euskararen Herria osatzen dugu denon artean. Euskal Herria.

Hizkuntzaren osasuna, ordea, erabilerak erakusten du, eta hor erronka handiak ditugu, gaur bertatik

hasita. Hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskara sustatzeko ariketa handia egin dugu azken egunotan, bai herritarrek, gizarte eragileek zein erakunde publikoek.

Atzo amaitu zen Euskaraldia, eta beste behin ere ederra izan da herri honek euskaraz bizitzeko adierazi duen gogoia. Euskararen biziberritzea, ordea, ezin da ulertu ahalegin indibidualen batuketa moduan. Erakunde publikoari eredu izatea dagokigu, eta herritarrei euskaraz bizitzeko bidea bermatzea eta erraztea.

Udalerri euskaldunei eustea ezinbestekoa du herri honek, euskararen herria izaten jarraituko baldin badu. Horretarako, udalerri euskaldunak garatzeko erabakiak eta bitartekoak behar ditugu, udalerriei bizirik eusteko. Baina baita udalerri horietan euskarari eusteko ere. Hirigintzan, ekonomian, lurralde antolaketan, kulturen edota turismoa sustatzeko ekimenetan hartzen ditugun erabakiek eragin handiagoa izan dezakete euskararen erabileran eta bilakaera soziolinguistikoan, euskara zerbitzuetatik hartzen diren erabakiek edota egiten den hizkuntza politikak baino. Aurten,

Euskararen Eguna, hori ikusarazteko eta ulertarazteko mugarriz izatea nahiko genuke.

Izan ere, udalerri euskaldunetan euskarari eusteko egiturazko erabaki ausartak behar ditugu, elebitasun orekatua gainditu eta oraindik ere hauskorrak diren udalerri euskaldunetan euskarak bidea eta arnasa zabaltzen segi dezan.

Deban, 2022ko azaroaren 24an.»

Gilen Garcia: Ez badaude ekarpenik, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Euskaraldiaren Adierazpen Instituzionala.

7.- ESKARI ETA GALDERAK.

Gilen Garcia: Ba al dago eskari edo galderarik?

Pedro Bengoetxea: Jakin nahiko genuke zein egoeran dauden gazteendako alokairurako laguntzak.

Gilen Garcia: Besterik ba al dago?

Enrique Salgado: Kontuan hartuta abenduko osoko bilkuran aurrekontuak onartzeko asmoa dugula, beharrezkotzat jotzen dugu, Ogasun Batzordean aztertu baino lehen, beste Batzordeetatik pasa dezaten, bertan aztertu, eta gero Ogasun Batzordetik pasatzea, joan den urtean bezala gerta ez dadin, ez baitziren Batzordeetatik pasatu, eta gero aldaketak egin behar izan genituen.

Gilen Garcia: EAJtik baduzue zerbait?

Aritz Larrañaga: Alokairuen kontura, Jose Luisek azalduko du zehatzago momentuan nola dauden, baina, oinarriak onartuta, deialdia egin

Gilen Garcia: Si no hay aportaciones, procedemos a la votación. ¿Votos a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, aprueba la Declaración Institucional de Euskaraldia

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Gilen Garcia: ¿Hay algún ruego o pregunta?

Pedro Bengoetxea: Quisiéramos saber la situación de las ayudas para el alquiler de jóvenes.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna más?

Enrique Salgado: Teniendo en cuenta que tenemos la intención de aprobar los presupuestos en el Pleno del mes de diciembre, consideramos necesario que, antes de que pasen por la Comisión de Hacienda, pasen por las diferentes Comisiones, se traten, y luego pasen por la Comisión de Hacienda para que no pase como el año pasado, que no pasaron por las Comisiones y luego tuvimos que hacer modificaciones.

Gilen Garcia: Desde el PNV ¿tenéis alguna pregunta?

Aritz Larrañaga: En relación con los alquileres, José Luis explicará con más detalle cómo están en este momento, pero aprobadas las bases, se



DEBAKO UDALA

zen eta hainbat herritar izena eman zuten. Guztira zazpi eskaera egon ziren, batzuei dokumentazio osatzeko errekerimendua egin zitzaien, eta errekerimendu horien zain gaude diru-laguntzak emateko.

Jose Luis Salaberri: Bai zazpi eskera egon ziren, horietatik bost ez zuten dokumentazio guztia aurkeztu, eta errekerimendua egin zitzaien dokumentazioa aurkezteko. Erantzuteko epe guztiak dagoeneko ez badira bukatu, laster bukatuko dira, eta erantzunak jaso ahala prestatuko ditugu ebazpenak

Gilen Garcia: Aurrekontuena, Enriquek eginiko proposamena jasotzen dugu, eta ahaleginduko gara hori betetzen.

Eta horrenbestez, amaitutzat emango dugu Osoko Bilkura.

Beste aztergairik ez dagoenez, 19:30ean amaitzen da Osoko Bilkura

hizo la convocatoria, y se inscribieron varias personas. En total hubo siete solicitudes, a algunas se les requirió para que completaran la documentación, y estamos pendientes de los requerimientos para otorgar las subvenciones.

Jose Luis Salaberri: Efectivamente hubo siete solicitudes, de ellas cinco no presentaron toda la documentación y se les requirió para que la completaran. Si no han finalizado ya todos los plazos para responder finalizaran en breve, y una vez recibidas las respuestas, preparemos las resoluciones.

Gilen Garcia: En cuanto a los presupuestos, recogemos la propuesta de Enrique, e intentaremos cumplirla

Y con esto, daremos por finalizado el Pleno.

Sin más temas que tratar, a las 19:30 horas, finaliza el Pleno.

Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria



Gilen Garcia Boyra
Alkatea

